GAZTETALK BILBAO EUROPA

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

#BilbaoGazteTalk

MINTEGIA - Hiri gazteak eraikitzen: GAZTEEN AISIA

SEMINARIO - Construyendo ciudades jóvenes: OCIO JUVENIL

17 y 18 de mayo de 2017

EDUKIAK

1. MINTEGIAREN AURKEZPENA… 3 or.

- Zer da Gaztetalk - Gazteen Aisia?

- Mintegiaren egitura

2. LANTALDEEN ONDORIOAK… 6 or,

A. Diagnostikoa: Bilboko gazteen aisiari buruzko hausnarketa ...6. or.

- *Gazteen aisiaren eta Bilboko hiriaren arteko interakzioa.*
- *Gazteen gaueko aisiaren eta auzokideen arteko bateragarritasuna.*
- *Gazteen gaueko aisiaren eta gazteen osasunaren arteko bateragarritasuna.*

B. Prosprekzioa: Gazteen gaueko aisiaren alorreko jarduera-ildoetarako proposamenak.

- *Auzokideekiko bizikidetzarekin bateragarriagoa izango den gazteen gaueko aisiarako proposamenak.*
- *Gazteen osasunarekiko bateragarriagoa izango den gazteen gaueko aisiarako proposamenak.*

- "ZER DA GAZTETALK - GAZTEEN AISIA" MINTEGIAREN AURKEZPENA

ZER DA GAZTETALK - GAZTEEN AISIA?

ZER DA GAZTETALK - GAZTEEN AISIA?

Gaztetalk topaketak

Gaztetalk topaketen jatorrian GAZTELTAK BILBO-EUROPA proiektua dago. Europar Batasunaren Erasmus + 3. ekintza programak eta Bilboko Udalak elkarrekin finantzatutako proiektua da.

Europar Batasunaren Elkarrizketa Egituratua eta Europa 2020 Estrategia bultzatzen duen proiektu horrek ekintza zehatzak eta etorkizuneko erronkak eraman nahi ditu Europako udalen gazteei buruzko politiketara.

"Hiri gazteak eraikitzen - gazteen aisia" mintegia

2017ko maiatzaren 17an eta 18an, "Hiri gazteak eraikitzen: gazteen aisia" GAZTETALK mintegia burutu zen Bilborocken.

Hiriko 30 gaztek eta 18 eragilek hartu zuten parte mintegian. Hitzaldiak egin, estatistika-datuak aurkeztu, gazteekin elkarrizketan jarduteko espazio bat eratu eta partaidetzarako jardunaldi bat egin ziren.
Hurrengo orrialdean ageri da mintegiaren egitura.

Mintegiaren egitura

Maiatzak 17

GAZTETALKen AURKEZPENA

Jardunaldiaren irekiera-ekitaldia, Bilboko alkate Juan Mari Aburtoren eskutik.

KASU ARRAKASTATSUAK

Amsterdameko hiriaren esperientzia gaueko aisiari lotutako gatazken konponbidean. "Amsterdameko gaueko alkatea" Mirik Milan jauna.

DIAGNOSTIKOA BILBOKO GAZTEEN AISIA

18 eta 25 urte bitartekoentzako gazte-aisiari buruzko Bilboko diagnostikoaren aurkezpena.

GAZTEEKIN HIZKETAN

Gazteekin hizketan euren aisiari buruz duten ikuspegiaren inguruan.

Maiatzak 18

Gazteen eta gazte-aisiaren arloko herri-erakundeen eta gizarte-eragileen lana aztertzeko jardunaldia.

PARTE HARTZEKO SAIOA - DIAGNOSTIKO FASEA

Gazteen gaueko aisiak hiriarekin duen interakzioari buruzko partaidetzako diagnostikoa.

PARTE HARTZEKO SAIOA - PROSPREKZIO FASEA

Auzokideekiko bizikidetzarekin eta gazteen osasunarekin bateragarriagoa izango den gazteen gaueko aisia gauzatzen joateko neurrien proposamena.

2017/05/18ko talde-lanean sortutako emaitzetan ardaztuko da agiria.

TALDEKO LANAREN ONDORIOAK

A) DIAGNOSTIKOA BILBOKO GAZTEEN GAUEKO AISIALDIARI BURUZKO GOGOETA·

DIAGNOSTIKOA

GAZTEEN GAUEKO AISIAREN ETA BILBOREN ARTEKO INTERAKZIOA

GAZTEEN GAUEKO AISIAREN ETA BILBOREN ARTEKO INTERAKZIOA

Gazteen gaueko aisiaren eta Bilboren arteko interakzioaz aritzean, jarduera horrek hirian dituen inpaktuak identifikatu zituzten Gaztetalken parte hartu zuten lagunek. Inpaktuetako batzuk positiboak dira, eta beste batzuk negatiboak.

Gazteen gaueko aisiak hirian dituen inpaktu POSITIBOAK

Lehenengo eta behin, denak bat datoz gaueko aisiak giro ona sortzen duela hirian, kalea beste gazte batzuekin partekatzeak dakarren "energia positiboan, dibertsioan eta alaitasunean" oinarrituta. Gainera, sozializatzeko bidea ere bada gaueko aisia. Izan ere, hari esker, gazteek harreman berriak egiteko eta lagun-ingurunea handitzeko aukera dute.

Jasotako iritzien arabera, gaueko aisiak hiriaren aberastasuna, kultura-aniztasuna eta nortasuna osatzen laguntzen du, gaur egun dauden aisiarako guneen eta aukeren bidez. Ildo horretan, gaueko jarduerak irudi modernoagoa, gazteagoa eta biziagoa ematen dio Bilbori biztanleen nahiz bisitarien aurrean.

Gaueko aisia defendatzeko argudio ekonomiko ugari ere badituzte gazteek: ostalaritzari (tabernei, diskotekei...) onura ekonomikoa dakarkio, baina baita kultura-alorrari (artistei, ekitaldi-sustatzaileei...), garraioari (taxiei, garraio publikoari...) eta zeharka lotutako beste sektore batzuei ere. Horren guztiaren ondorioz, lanpostu ugari daude, zuzenean edo zeharka, gaueko aisiari lotuta.

Segurtasunaren ikuspuntutik ik, berriz, gazteak gauez kalean ibiltzen direnez, delituak (lapurretak, erasoak..:) galarazten dituzte.

Gazteen gaueko aisiak hirian dituen inpaktu NEGATIBOAK

Partaide gehienen ustez, gazteen gaur egungo gaueko aisia-eredua alkoholaren gehiegizko kontsumoari lotuta dago. Hain zuzen ere, kalean edanean ibiltzeko kultura horrek sortu eta biderkatzen ditu gaueko aisiak hiriak dituen ondorio kaltegarri gehienak: zarata, zikinkeria, erasoak... Hein txikiagoan, droga-kontsumoa ere aipatu dute jokabide desegokien eragiletzat.

Gaueko aisiari buruzko diskurtsoan behin eta berriro agertzen da zarata, jai-lokaletatik eta kalean edaten den lekuetatik hurbil dauden puntuei lotuta. Auzokideen atsedenarekiko errespetu faltak gazteen, auzokideen, jai-lokalen jabeen eta Udalaren arteko bizikidetza-arazoak eragiten ditu.

Gaueko aisiak kaleetako higienean ere eragiten du. Gazteek ere azpimarratzen dute asteburuetan zaborrak eta txiza pilatzen direla kalean. Hain zuzen, hori guztia garbitzeak herritar guztiei dakarkien kostua eta hiriaren irudi publikoari egiten dion kaltea azpimarratu dute partaideek.

Gaueko aisiak gazteen osasunean daukan inpaktu negatiboak ere kezka handia sortzen du, batez ere denbora gutxian alkohol asko edaten dutelako.

Azkenik, gauean puntualki gertatzen den segurtasun-gabezia ere aipatu izan da: lapurretak, borrokak, bandalismoa, eraso matxistak eta LGTBI kolektiboaren aurkako erasoak... Halakoak ere gaueko aisiaz gozatzen duten pertsonentzako arrisku-bideak dira.

DIAGNOSTIKOA

GAZTEEN GAUEKO AISIAREN ETA AUZOKIDEEN ARTEKO BIZIKIDETZA

GAZTEEN GAUEKO AISIAREN ETA AUZOKIDEEKIKO BIZIKIDETZAREN ARTEKO BATERAGARRITASUNA

Gaueko gazteen aisiaren diagnostikoa egitean, Gaztetalken parte hartu dutenek onartzen dute gazteen eta auzokideen interesak bateratzeko ARAZOAK daudela. Honako hauek azpimarratu dituzte, zehazki:

- Zarata eta higienea dira auzokideen eta gaueko aisiaz gozatzen dutenen arteko "gatazkagune" nagusiak.
- Alkoholaren gehiegizko kontsumoak eragindako portaera gizalegegabeak daude arazo horren jatorrian.
- Partaideen ustez, gazteak ez dira guztiz jabetzen gizalegegabeko portaerek dituzten ondorioez, Udalak bizkor garbitzen dituelako hondakin guztiak. Gainera, zaratarengatiko kexu gehienak Udalera heltzen dira, ez gazteen belarrietara.
- Batzuen eta besteen (gazteen, lokalen, auzokideen) arteko posizioan mintzakidetza eta ulermena falta dela antzematen da, eta horrek ez du laguntzen gatazkak konpontzen.
- Hiriko gaueko aisia ez da plangintza baten ondorioz eraiki eta, horrenbestez, jai-lokal asko jendea bizi den lekuetan daude. Etxebizitza eta lokal horietako batzuk, gainera, ez daude egoki intsonorizatuta (eraikin zaharrak...).

- Administrazioari dagokionez, partaideak kexu agertu dira gaur egungo araudia edota araudi horren ezarpena ez direlako aisia eta atsedena bateratzeko eragingarriak.

- Azkenik, gazteen gaueko aisiak sortutako arazoei buruzko diagnostiko argi eta partekatua falta dela uste dute partaideek; gauzak horrela, ezinezkoa da gai horri ganoraz heltzea. Ebidentzietan eta datuetan oinarritutako diagnostiko bat finkatu beharko litzateke.

Gazteen gaueko aisia eta auzokideekiko bizikidetza bateratzeko zailtasunak zailtasun, GATAZKA SENTSAZIOA ARINTZEN DUTEN ALDERDI batzuk adierazi dituzte, jarduera-ildotzat ere balio lezaketenak.

- Partaideen iritzian, bizikidetza-maila handia lortzeko aukera dago, beste hiri batzuetan ezarritako neurriak eraginkorrak izan baitira atsedenerako eskubidea errespetatzeko eta, aldi berean, gazteen gaueko aisiarako eskaria asetzeko.

- Esperientzia pertsonalean oinarrituta, partaideek uste dute Bilbon auzokideen eta gazteen artean sortzen diren gatazketako asko elkarrizketaren eta negoziazio informalen bidez konpon daitezkeela. Hiri-mailako adostasunak erdiesteko bidea irekitzen du horrek.

- Azpimarragarria da, halaber, Bilbon badaudela gazteen gaueko aisiarako eredu eta eremuak, auzokideen atsedenarekiko guztiz bateragarriak direnak.

DIAGNOSTIKOA

GAZTEEN GAUEKO AISIAREN ETA GAZTEEN OSASUNAREN ARTEKO BATERAGARRITASUNA.

GAZTEEN GAUEKO AISIAREN ETA GAZTEEN OSASUNAREN ARTEKO BATERAGARRITASUNA.

Diagnostikoan, gazteek eta eragileek aitortzen dutenez, gazteen gaueko aisia EZ DA BATERAGARRIA gazteen osasunarekin. Gaueko aisia-eredu nagusia alkoholaren eta beste substantzia batzuen gehiegizko kontsumoari lotuta egoteagatik ematen da.

- Bringe drinking delakoa edo alkohola kopuru handitan denbora-tarte laburrean kontsumitzea osasunerako ohitura kaltegarrienetakoa da gaueko aisiaren barruan.
- Gazteenen arteko alkoholaren kontsumoa, neurri batean, helduek alkoholari buruz berba egiteko erabiltzen duten tonu laxoaren ondorioa da, izan ere, edaria gizarteratzeko tresna gisa baliatzen da.
- Alkoholarekin izandako lehen harremanari dagokionez, kontsumitzen hasteko adina aurreratu izana eta 20 urte baino gutxiagoko gazteen artean ardura barik edatearen inguruko iritzia dira kezka-iturri nagusia. Gainera, horren kalteak handiagoak dira adin-tarte hauetan, garapen fisiko eta mentala garrantzitsua delako.
- Alkoholak eta beste substantzia batzuk epe luzean osasunerako dituzten arriskuak gazteentzat ezagunak ez direla uste da, izan ere, horietatik eratorritako gaixotasunetako asko nagusiagoak direnean ematen dira. Gehiegi kontsumitzeak ere beste eragin batzuk ditu gazteengan, esate baterako, astegunetan nekea eta errendimendua jaistea (lanean, ikasketetan...).
- Saltokiek ez dute errurik baina, hala ere, saltegi askok bezeroen egoera zein den kontuan hartu barik alkohola saltzea tamalgarria da; izan ere, horrek alkohol-intoxikazioko kasu larriak eragin ditzake.

A. BILBOKO GAZTEEN GAUEKO AISIALDIARI BURUZKO GOGOETA.

Parte-hartzaileek gazteen gaueko aisia eta haien osasuna BATERAGARRIAK IZAN DAITEZKEELA nabarmendu dute.

- Gaueko aisia osasungarrirako eskaintza ere badago Bilboko gazteentzat eta alkoholari lotutakoaren ordezko aukera osatzen du.
- Gazte askok zentzuzko kontsumoa egiten dute lagunartean daudenean. Gainera, urteen poderioz kontsumo arduratsuago eta mugatuagoa egiten da.
- Azken urteetako prezioen gorakadak gutxiago edatea eragiten du.
- Azkenik, gaueko aisia gazteentzat positibo eta beharrezkoa da, osasun mentalerako, ikaste-prozesurako eta gizarteratzeko lagungarria delako (gehiegizko kontsumoari lotuta ez badago).

TALDEKO LANAREN ONDORIOAK

B) PROSPEKZIOA: GAZTEEN GAUEKO AISIAREN ALORREKO JARDUERA ILDOEN PROPOSAMENAK

PROPOSAMENEN HELBURUA:

GAZTEEN GAUEKO AISIA AUZOKOEN ELKARBIZITZAREKIN BATERAGARRIA IZATEA

GAZTEEN GAUEKO AISIA AUZOKOEN ELKARBIZITZAREKIN BATERAGARRIA IZATEKO PROPOSAMENAK

Gaztetalken parte hartu zutenek hainbat proposamen egin zituzten gazteen gaueko aisia-eredua auzokoak errespetatzeko moldatzeari dagokionez:

- *Etxebizitzakoak ez diren eremuetan gaueko aisiarako esparruak sortu (LEHENETSITAKO NEURRIA)*
- *Udal bitartekaritzako zerbitzua sortzea egoiliar, gazte, lokalen eta besteren arteko gatazkak kudeatzeko... (LEHENETSITAKO NEURRIA).*
- *Gaueko aisia errespetuzko eredu arduratsuaren inguruan gazteak kontzientziatzea.*
- *Legearen betearazpena kontrolatzea eta zehapenak ezartzea.*
- *Zarataren Bilboko behatokia sortzea dezibelioen mugak gainditzeari buruzko ebidentziak eskaintzeko.*
- *Ostalaritza haren inguruan sortutako arazoen kudeaketan inplikatzea.*
- *Gazteen jai-esparruak zikinkeria murrizten duten ekipamenduez hornitzea (edukiontzi gehiago, WC eramangarriak...).*
- *Gaueko aisialdian gizalegezko jokabidearekin bat ez datorren guztiak aurrekontu publikorako dakarren kostuaz sentsibilizatzea.*
- *Gazteen gaueko aisia hasteko ordua aurreratzearen alde egin, hala lehenago amaitu dadin.*
- *Jaiegunetako gauetan ematen diren sexu-erasoei buruzko prebentzio, kontzientziazio eta aholkularitza.*

Jarraian, jardunaldiko parte-hartzaileek eurek luzatutako eta lehenetsitako 2 proposamenen azalpen zehatza egingo dugu.

1. NEURRIA: ETXEBIZITZAKOAK EZ DIREN EREMUETAN GAUEKO AISIARAKO ESPARRUAK SORTZEA

Gaur egun gazteen aisia metatzen diren hainbat puntu daude. Horietan, auzokoentzako eragozpenak sortzen dituzte behin eta berriz. Egoera horri konponbidea emateko, gaueko aisia etxebizitza gutxi duten eta Bilboren periferian dauden eremuetan garatzea sustatu nahi dute, ingurune hori "gazte auzo" bilakarazteko. Bestetik, gaueko aisiarako ekitaldiak burutu daitezkeen eraikin publiko edo erdipublikoak erabiltzeko aukera aipatu da, esate baterako, Bilborock, Bilbao Arte, La Aceria, Zawp…

Arrakasta izateko, aisiarako esparru horiek hurrengo ezaugarriak bildu behar dituzte:

- Garraiobide egokiak (GauTxori, Metrora eramaten duten autobusak…), erraz heltzeko baliabideak edukitzea.
- Segurtasun-neurri egokiak (argiteria, kontrolak...) edukitzea.
- Udalak erraztasunak ematea ordutegien lizentziei dagokienez (ordu-tarte zabalagoak eta 24 orduko lizentziak ere bai).
- Esparru hauetako gaueko aisiaren zehaztapenean gazteek parte-hartzeko aukera edukitzea, autogestioari lotutako ereduetarantz aurrera eginez.
- Jarduera askotarako esparruak antolatu ostalaritzari, musikari eta beste zenbait alderdiri lotutako eredu berriak garatu ahal izateko.

2. NEURRIA: UDAL BITARTEKARITZAKO ZERBITZUA SORTZEA EGOILIAR, GAZTE, LOKALEN ETA BESTEREN ARTEKO GATAZKAK KUDEATZEKO.

Gauez behatutako jarrerak ingurunerako errespetuzkoak ez direla ikusi da (kaleak zikindu, kutsadura akustikoa sortu). Horrek auzokoen kexak eta gatazka-maila desberdineko egoerak ekarri ditu.

Egoera hauei konponbidea eskaintzeko, bitartekaritzan adituak diren pertsonez osatutako zerbitzua sortzea proposatu da. Hala, inplikatutakoen iritziak jaso ahal izango dituzte (auzokoak, gazteak, ostalaritza...) eta gatazka-guneetara norberak edo auzokoek erabakita joango dira. Zerbitzu hau jarrera desberdinen arteko eztabaida errazteaz eta interesak bateratzeaz arduratuko litzateke.

Zerbitzu hau Poliziarekin koordinatuta egongo litzateke kasu larrienetarako, eta arroparen gainerako ikurren baten bidez kalean erraz identifikatu litezke.

Horrekin batera, bitartekaritzaren eremuan sakonduta, parte-hartzaileek Bilboko eta auzokako mahaiak auzokoen ordezkariekin eta gazteekin osatzeko aukera luzatu dute, horrela hitzarmenak lotu ahal izateko.

PROPOSAMENEN HELBURUA:

GAZTEEN GAUEKO AISIA AUZOKOEN ELKARBIZITZAREKIN BATERAGARRIA IZATEA

GAZTEEN GAUEKO AISIA AUZOKOEN ELKARBIZITZAREKIN BATERAGARRIA IZATEKO PROPOSAMENAK

Egon litezkeen jarduera-ildoak identifikatzeari begira, gazteen osasunarekin bateragarriagoa den gazteentzako gaueko aisia-ereduan aurrera egiteko proposamenak luzatzera gonbidatu genituen bertaratuak. Hona hemen jasotako ekarpenak:

- *Alkoholarekin eta drogekin bateragarria ez den gaueko aisia-eskaintza sortzea eta iragartzea. (LEHENETSITAKO NEURRIA)*
- *Alkohola eta beste droga batzuk kontsumitzeak osasunean eragiten duen kalteaz kontzientziatzea. (LEHENETSITAKO NEURRIA)*
- *Alkohola edatera gazteak bultzatzen dituzten arrazoiak aztertzea. Horren ondoren, horretara eramaten duten arrazoiak identifikatu eta borrokatzea.*
- *Alkohola adinbakoei saltzeko debekua saltegi guztietan betearaztea.*
- *Gaueko aisia hasteko eta amaitzeko ordua goizago izatea sustatzea.*
- *Kontsumo arduratsuari buruz gazteak kontzientziatzeko lanean ostalaritzako langileak inplikatzea: ageriko mozkorra dutenei alkoholik ez saltzea, haien saltegietan drogarik ez hartzeko neurriak ezartzea, haien lokalen ateetan daudenen jokabideak zaintzea.*

Jarraian, jardunaldiko parte-hartzaileek eurek luzatutako eta lehenetsitako 2 proposamenen azalpen zehatza egingo dugu.

1. NEURRIA: ALKOHOLAREKIN ETA BESTE DROGEKIN BATERAGARRIA EZ DEN GAUEKO AISIAREN BESTELAKO ESKAINTZA SORTZEA ETA IRAGARTZEA

Gazteen gaueko aisia-eredua alkoholaren eta, neurrian txikiagoan, beste drogen gehiegizko kontsumoari lotuta dagoela deritzote guztiek. Errealitate horren aurka borrokatzeko asmoz, gauerako bestelako aisia-eskaintza sortzea eta gizarteratzea proposatu egin da.

- Batez ere, gazteen gustuko gaueko jarduerak egitea da asmoa.
- Kontsumoarekin edo gehiegizko kontsumoarekin bateragarriak ez diren jarduerak aipatu dira, nolabaiteko jarduera fisiko eta mentala eskatzen dutelako: kirol ekitaldiak, jolasak, lehiaketak, gaueko zinema, gaueko gimnasioak, bakarrizketak, kontzertuak, mendirako gaueko txangoak, gaueko film laburren filmaketa, teknologia berriei lotutako ekitaldiak...
- Jarduera horiek, prezioari dagokionez, erakargarriak izan behar izango lukete, bertara joatea sustatzeko.
- Gaztetalkeko parte-hartzaileen esanetan, “ordezko” aukera hauetako batzuk dagoeneko badaude, baina publizitate nahikorik ez dutela eta gizarteak ezagutzen ez dituelakoan daude. Arlo honetako Udalaren eskaintza berritzea eta gazte ukitua nahiz publizitate handiagoa ematea eskatzen dute. Gazteentzako gaueko aisiaren gaiak berariaz aipatzen dituen kultur agendarako APP bat sortzeko aukera ere mahaigaineratu dute.
- Gazteek berezko kultur eskaintza zehazteko espazioak sortzea (autogestioan oinarritutako espazioak).

2. NEURRIA: ALKOHOLA ETA DROGEN KONTSUMOAK OSASUNEAN DITUEN ARRISKU ETA EFEKTUEZ KONTZIENTZIATZEA.

Gaztetalkeko gogoetaldiaren hasieran, gazte batzuk, alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoak haien osasunean eragiten dituen arrisku eta efektuen berri ez dutela aipatu zen. Ildo horretan, Gaztetalkeko parte hartzaileek arriskuen prebentziorako sentsibilizazio eta kontzientziazio arloko jarduerak sustatzea beharrezko jotzen dute.

- Gehiegizko kontsumoak eragindako ondorioez sentsibilizatzea. Norberak erabaki behar du kontsumituko duen ala ez, baina ondorioez ohartuta.
- "Mugak ezartzeari buruzko" kanpainak sustatzea.
- Kanpainak egiteko ikastetxeak erabiltzea, baina baita beste eremu publiko batzuk (gazteguneak, udaltegiak...) ere.
- Kaleko hezitzaileen figura sustatzea: gazteen bidezko aurrez aurreko komunikazioa.
- Alkoholemia-testa egiteko nahiz jai-eremuetako substantziak aztertzeko puntuak ezartzea, udalerrietako jaietan egiten ohi den bezala.
- Kate horizontalen bidez arriskuen komunikazioa erraztea: Kultur, kirol edo bestelako elkarteetako gazteei arriskuen inguruko prestakuntza ematea haien ingurukoei horren berri emateko.

B. GAUEKO GAZTE AISIAREN ALORREKO JARDUERA ILDOEN PROPOSAMENAK

- Sentsibilizazio-kanpainek eragin handiagoa izateko, hona hemen proposamenak:
  - Drogen edo alkoholaren efektuen peko gazteen irudiak erabiltzea.
  - Gazteen ikono direnek (kirolariak, artistak...) parte hartzea lortzea.
  - Gehiegizko kontsumoagatik ondorio larriekin geratu diren pertsonen testigantzak erabiltzea.